

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko ekainaren 5etik 11rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/11

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** –Ebazpena, 2021eko maiatzaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, saltoki handien sektoreko hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **9764 xedapena - 56 or.**

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** –Ebazpena, 2021eko maiatzaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den landa-zerbitzuetan diharduten enpresen hitzarmen kolektibo nazionala, birjartze jardueretarako eta eragiketen marketin zerbitzuetarako. **9765 xedapena - 35 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/05

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** – **Haurren eta nerabeen babesa.** - 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babestekoa. **9347 xedapena - 74 or.**
- **BARNE MINISTERIOA.** – **Mugak.** - INT/552/2021 Agindua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioko beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik. **9349 xedapena - 3 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA.** – **Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordea.** – Ebazpena, 2021eko ekainaren 4koa, Osasuneko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordearen Erabakia, COVID-19aren aurrean jarduketa koordinatuak deklaratzeari buruzkoa. **9351 xedapena - 5 or.**
- **Mugak.** – **Osasun kontrola.** – **Ebazpena, 2021eko ekainaren 4koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiara sartzeko puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzkoa.** **9352 xedapena - 9 or.**

2021/06/08

- **OSASUN MINISTERIOA.** – **Zergak.** - HAC/559/2021 Agindua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez onesten diren aduanaren, balio erantsiaren gaineko zergaren eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloko arauak, aisialdirako eta pribatuak ez diren itsasontzi eta aireontzien hornidura eta ekipamendu salbuetsiari buruzkoak, bai

eta zergarik gabeko dendetan entregatzeari eta bidaiariei ontzian saltzeari buruzkoak ere. [9492 xedapena - 12 or.](#)

- **Zergak. – Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskala. - HAC/560/2021 Agindua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez onesten diren sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorre dagokiena eta Espainian egoitza duten atzerrian eraturako errenta-egozpenaren araubideko entitateei dagokiena) 2020ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zerga-aldietarako aitorten ereduak; instrukzioak ematen diren aitortena eta sarrera egiteko prozedurari buruz, eta ezartzen diren elektronikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedurak; eta zeinaren bidez aldatzen den HAP/296/2016 Agindua, martxoaren 2koa, 282 eredu onesten duena ("Kanarietako Erregimen Ekonomiko eta Fiskalaren eta Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatzaren ondoriozko Estatuko beste laguntza batzuen esparruan jasotako laguntzen urteko informazio aitortena") eta hori aurkezteko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituena. [9493 xedapena - 198 or.](#)**
- **Nortasun juridikorik gabeko funtsak. Kontabilitatea. – Ebazpena, 2021eko ekainaren 2koa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiarena, 2013ko irailaren 12koa aldatzen duena, zeinak arautzen duen aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 2. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko funtsetarako urteko kontuak lortu, formulatu, onetsi eta emateko prozedura. [9494 xedapena - 3 or.](#)**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Animalien osasuna. - 370/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, zeinaren bidez xedapen espezifikoak ezartzen diren Espainian Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2019/4 (EB) Erregelamendua (sendagai-pentsuen fabrikazio, merkaturatze eta erabilerari buruzkoa) aplikatzeko, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 183/2005 (EE) Erregelamendua aldatzen duen, eta indargabetzen duen Kontseiluaren 90/167/EEE Zuzentaraua, eta Europar Batasuneko beste arau batzuk, pentsu eta sendagaien alorrekoak, eta abeltzaintzaren alorreko hainbat errege dekretu aldatzen dituen. [9495 xedapena - 15 or.](#)**
- **OSASUN MINISTERIOA. – Estupefazianteak. - SND/561/2021 Agindua, ekainaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den, isotonitazenoa substantzia gehitzeko, 1194/2011 Errege Dekretua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez prozedura ezartzen den eremu nazionalen substantzia bat estupefaziantez hartzeko. [9496 xedapena - 3 or.](#)**

2021/06/09

- **OGASUN MINISTERIOA. – Ezarpen zuzena. Adiskidetasunezko prozedurak. - 399/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, zuzeneko zergen arloko adiskidetasunezko prozeduren Erregelamendua, azaroaren 3ko 1794/2008 Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta beste zerga-arau batzuk aldatzen dituena. [9558 xedapena - 29 or.](#)**
- **Zergak. Tributu prozedurak. - 400/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, zeinaren bidez erabiltzaileen gailuak lokalizatzeko arauak eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren obligazio formalak garatzen diren, eta**

Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko jarduketan eta prozeduren eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko prozeduren Araudi Orokorra aldatzen den, zeina uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. [9559 xedapena - 7 or.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun neurriak.** - SND/568/2021 Agindua, ekainaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den SND/292/2021 Agindua, martxoaren 26koa, osasun kontroleko neurriak ezartzen dituen Frantziatik Espainiara lehorretik iristen diren pertsonentzat. [9562 xedapena - 3 or.](#)
- **Mugak. Osasun kontrola. – Ebazpena, 2021eko ekainaren 8koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2021eko ekainaren 4koa aldatzen duena, Espainiara sartzeko puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzkoa.** [9563 xedapena - 2 or.](#)

2021/06/11

- **OGASUN MINISTERIOA. – Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga.** - HAC/590/2021 Agindua, ekainaren 9koa, zeinaren bidez onesten den 490 eredua ("Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren autolikidazioa") eta hori aurkezteko forma eta prozedura ezartzen diren. [9721 xedapena - 7 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Telekomunikazioak.** - 374/2021 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, ekipo erradioelektrikoak merkaturatzeko, martxan jartzeko eta erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen Araudia aldatzen duena, eta maiatzaren 6ko 188/2016 Errege Dekretuak onetsitako telekomunikazio ekipoen onespina, merkatuaren zaintza eta zehapen erregimena ebaluatzeko prozedura arautzen duena. [9722 xedapena - 4 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun neurriak.** - SND/591/2021 Agindua, ekainaren 10ekoa, zeinaren bidez luzatzen den SND/413/2021 Agindua, apirilaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean Indiako Errepublikatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi baldintzei buruzkoa. [9723 xedapena - 3 or.](#)
- **Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordea. – Ebazpena, 2021eko ekainaren 10ekoa, Osasuneko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordearen Erabakia, COVID-19aren aurrean jarduketa koordinatuak deklaratzeari buruzkoa.** [9724 xedapena - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/06/11

- **XEDAPEN OROKORRAK. - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 3/2021 FORU ARAUA, apirilaren 15ekoa, 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten dituen. [3346 xedapena - 32 or.](#)
- **SEGURTASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 19koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren agindua, garatzen duena nola bete behar diren Ertzaintzaren erregistro- eta informazio-betebeharrak

bitxien eta metal preziatuak dituzten objektuen merkataritzan eta birziklapenean. [3351 xedapena - 1 or.](#)

• **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko ekainaren 2koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Bilakatu COVID-19 programa arautzen baita, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-, produktu-, zerbitzu- eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio- edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko. [3354 xedapena - 15 or.](#)

• AGINDUA, 2021eko ekainaren 2koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntzak ezartzen baitira sendotze-jarduketak egiten dituzten eta COVID-19ak kaltetu dituen enpresentzako. Bateratu COVID-19 programa. [3355 xedapena -16 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

Día 09/06/2021

- **Arabako Foru Aldundia. - FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 75/2021 Foru Agindua, maiatzaren 14koa. Arautzea Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19ren osasun krisialdian, alarma egoera bukatu ondoren. [2023 xedapena - 5 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/06/09

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 7/2021 Foru Dekretua, ekainaren 8koa, interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2021. urterako ezartzen dituen. [2104052 xedapena - 6 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/06/10

- **ERREGELAMENDUA.** – Batzordearen 2021/933 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2021eko ekainaren 9koa, zeinaren bidez salbuespenak ezartzen diren 2017/39 (EB) Betearazpen Erregelamenduan, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko zenbait neurri dagokienez. [L 204/16 xedapena - 2 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO